



## ZUZENBIDEAN ARITZEKO HASI HELBURUAK JARTZEN

Mikel Mari KARRERA EGIALDE

**AURKIBIDEA:** I. Teoria eta praktika zuzenbidean.-II. Legelarien funtzioa.-III. Legelarien trebetasuna.-IV. Legelarien zeregin nagusiak.

### I. Teoria eta praktika zuzenbidean

**Zuzenbidea eta gizartea (gizarte-zientzia)** Zuzenbidea, gizartean bizitzeak eskatzen duen zerbait dela esan izan ohi da. Beraz, gizarteko bizitzatik sortu bada, zuzenbidearen erroak bizitzan bertan daude eta, zuzenbidea bizitzarako bada, gizartean aplikatzeko sortzen da beti. Bere funtzioa praktikari lotua dago ezinbestean: zuzenbidea existitzen bada, aplikatzeko da edo bestela ez da existitzen. Horregatik, zuzenbidea eguneroko bizitzan erraz sumatu daitekeen zerbait da: irakurri daiteke egunkarietan, entzun daiteke jendearen mintzaldietan, ikusi daiteke paisaian, sumatzen da egunean zehar bizitako egintzetan.

**MARCO TULLIO CICERON** Arrazoimenaren eraginez, gizakiak bere kideekin elkartu eta, familia-elkartean ez ezik, gizarte zibilean eta gizateria osoan ere partaide izan nahi du  
Ubi societas, ibi ius **Gizartea non, zuzenbidea han**

**Ondorena** Pertsonak eta horien arteko harremanak **finkatu** behar dira.

**Zuzenbidea eta iturriak (jario juridikoa)** Zuzenbidea emana edo ezarria baldin badago ere (legearen aginpidea edo ohituren segizioa), hortik abiatuz eraikitze eta sistematizatzeko lana egiten da (printzipio orokorrak, jurisprudenzia, doktrina). Noski, ez arbitrarioki, eraikitze-lana ez baita inoiz hutsetik abiatzen, aurrez errealitate juridikoren bat beti baitago.

**Dura lex, sed lex** **Legea gogorra da, baina legea da**

**Ondorena** Arauak **topatu** behar dira.

**Zuzenbidea eta hizkuntza (lengoaia juridikoa)** Zuzenbidea, berez, konbentzioa edo elkar ulertzeko modu bat da, hizkuntza edo lengoaia berezi bat, alegia. Konbentzio hori zehazteko, eredu teorikoak proposatu eta eman daitezke, eta baita sistema teorikoak eraiki ere.

**AMEDEO AVOGADRO** Zuzenbidea, saihestu batetik hitz-jarioa bada ere, ideiarekin borrokan poesia bihurtzen da, zuzenbidearengatik borrokatzea berez izaeraren poesia baita

**Ondorena** Arazoa eta araudia **ulertu** behar dira.



**Zuzenbidea eta aplikazioa (praktika juridikoa)** Zuzenbideko ikasketetan, oro har, indarrean dagoena azaltzen da, errealitateko konbentzioa. Eta horri lotu behar zaio, gero, konbentzio hori gauzatzeko zeregina eta teknika, esate baterako erregistroetako eta notaritzako praktika, aholkularitza soila (gestioa), epaileen lana, ikerketa, dibulgazioa eta abar. Eragile juridiko (legelari) orok, bere lanean, errekurtsio tekniko komunak erabiltzen ditu zuzenbidea aplikatzeko eta errealitatean dagoen konbentzioa jasotzeko garaian, bai idatziz (eskritura, kontratua, demanda, txostena), bai ahoz (klasea, defentsa, hitzaldia, aholkua).

**LEONARDO DA VINCI** Teoriarik gabeko praktikaz maitemintzen dena, lemarik edo iparrorrazik gabeko pilotua bezala da: inoiz ez daki norantz doan

**Ondorena** Irtenbideak azaldu behar dira.

**Zuzenbideko ikaslearen helburu nagusia** Zuzenbideko hizkuntza praktikan zuzen islatzeko teknikak lantzea: zuzenbidea non eta nola topatu, sistemaren printzipio eragileak zehaztu, arauak noiz erabili eta abar. Esate baterako, zuzenbidearen ezaugarriak eta praktika nekez uler daitezke pertsonen arteko berdintasuna eta autonomia pribatua zer diren jabetu gabe. Jarduera horiek teknika moduan eskura baditzake ere ikasleak, intuizio juridikoa eta jarrera kritikoa lantzea ere ezinbesteko zeregina du prestakuntza juridikoa osatzeko.

**AMORÓS GUARDIOLA** Zuzenbidearen munduan jarduera egokia eta ona izateko eta lortzeko, zuzen eraikitako teoria da biderik hoberena

**Ondorena** Oinarrizko jakintza ezinbestekoa da ezein aplikazio egin aurretik.

**Zuzenbideko eragilearen helburu nagusia** Gero, ikaslea eragile juridiko bihurtzean (abokatu, epaile, aholkulari eta abar), helburu pertsonal bat lortu nahiko edo beharko du kasu konkretu bakoitzean. Aholkatzeko edo erabakitzekeo garaia iristean, helburu hori hartu eta arauekin alderatzen du: komeni bazaio, araua aplikatuko du eta, komeni ez bazaio, araua baztertu edo okertuko du bere helbururako erabilgarri izan arte. Arauaren helburua kontuan izan gabe, interes pertsonalak nagusitzen dira zuzenbidearen aplikazioan. Azken batean, arauak zehaztu ostean, eragile bakoitzak bere intereserako egokien datozen arauak eta argudioak bakarrik hartuko ditu.

**Raymond SALEILLES** Nahi den emaitza zehaztea da abiapuntua, hura bidezkotuko duen printzipioa bilatzeko gero; hori da interpretazio juridiko ooren jatorria

**Ondorena** Zeregin desberdinak daude, baina kasu guztietan **eskatutakoari** erantzun behar zaio zuzenean, hori da helburua; eta erantzunak **ondorio juridikoak** jaso behar ditu beti.



## II. Legelarien funtzioa

**Interes-gatazkak** Gizarteko kideek elkarrekin dituzten interes-gatazkak bideratzeko dauden arauak, aginduak eta prozedurak osatzen dute zuzenbidea. Berez, gizarteak sortutako emaitza da, etengabe aldatzen doana, eta horregatik ekarpen berriak onartzen ditu gizartearen ondare juridikoa erabat indarberritzeko.

**Erantzuna** Ekarpene horiek, ia beti, eragile juridikoei proposatzen eta bideratzen dituzte gaur egun. Zuzenbidea lantegi hartuz eta legelariak langile bihurtuz, eginkizunaren emaitza, hau da, **zuzenbidearen fabrikatik ateratzen den produktua**, hiru hauetako bat izango da: **teoria**, **araua** edo **teknika**. Bereizketa hori, noski, maila teorikoan egiten da, praktikan nahastuta agertzen baitira askotan.

**Teoriak (funtzio dogmatikoa)** Teoria eraikitzeke logika, zientzia orori dagokion berbera da: aurkikuntzaren logika. Horrela, zuzenbidean ere, gauzak nola funtzionatzen duten aztertu eta azaldu daiteke. Horretarako, eremu jakin batean baliabide juridikoei nola funtzionatu eta zein eragin duten aurkitu behar da eta, esperientzia hori aintzat hartuz, teoria bat proposatu.

**Teoriaren helburua** Errealitate juridiko jakin baten konplexutasuna argitzeko eta menderatzeko esakune unibertsalak ematen saiatzea. Modu horretan sortutako erregelak, printzipio unibertsala izateko asmoz eraikia izan behar du beti. Zeregin hori posible da, honako hau onartzen den heinean bakarrik: printzipioen arabera antolatu daitekeen ezagutza-multzoa da zuzenbidea, alegia **istema edo makina konplexua** bat da. Horrela, aurrez dagoen eskarmentu juridikoa aztertu eta kontuan hartuz, errealitateko korapiloak eta egoera antzak bideratzeko eta zuzentzeko erregela orokorrak, oinarritzakoak eta argiak ematen dira.

**Sistema** Zeregin honetan, ez da nahikoa gaia sakon ulertzea, derrigorrezkoa da erakunde desberdinen arteko loturak ere egitea. Proposatutako antolaketa, orduan bakarrik izango da sistematikoa, edozein sistema eraikitzeke, elementu guztiak izan behar baitira kontuan. Horregatik ere, lan teorikoak bi funtzio bete behar ditu: funtzio **argitzailea** eta funtzio **sortzailea** (sistema zuzen antolatzeke kontzeptuak, irizpide eta erregela berriak ematea eta sistema taxutzea).

**Betekizunak** Horretarako, teoriak hiru betekizun bildu behar ditu:

**Funtzionaltasuna** Konplexutasuna bene-benetan laburtzeko erregelak eman behar dira, jadanik badiren erregelak errepikatzea tautologia hutsa bailitzateke.

**Funtsa** Sendotasun logikoa eta axiologikoa (baliozkoa) izan behar du erregelak.

**Faltsugarritasuna** Erregela faltsutzeko aukera egon behar da, hau da, teoriarekin bat etortzen ez den arau edo printzipio bat egiaztatzeko aukera izan behar da. Teoriarekin bateraezinak diren suposamenduak eman daitezke hipotesi aproposak emanez edo legerian bertan dauden ahultasunak agerian jarriz.

**Koherentzia** Noski, onartezina litzateke teoriaren eta praktikaren artean kontraesanik egotea.



**Erregelak (funtzio pragmatikoa)** Askotan, esakunea osatzeko batzen dira **teoria** eta **erregela** eta, horregatik, zail egiten da bereiztea bata eta bestea.

**Irizpidea** Erregelak ematea, legegilearen eta, hein batean, jurisprudentziaren zeregina da. Lan horretan ez dute aurkikuntzaren logika jarraituko, zuhurtziaren edo prudentziaren logika baizik. Ematen duenak zuhurtziarik gabe jokatzeko beste kontu bat da. Beren lana, beraz, aztertutako eta neurtutako arazoa konpontzeko zentzuzko araua bilatzea da: gauza ez da zerbaiti zentzua bilatzea, baizik eta zerbaitetarako zentzua sortzea eta zerbaiti neurria jartzea.

**Izatea** Horregatik, arazoizko konponbideak ez dira teoriak, erregelak baizik, zentzu praktikotik ateratako argudioak baitaude oinarrian. Zuhur jokatzearen eremuan sartzen direnez erregela positiboak, ez dira benetakoak edo faltsuak; izan daitezke egokiak edo desegokiak komenentziaren arabera edo konbentzimenduaren arabera.

**Teknikak (funtzio teknologikoa)** Zuzenbidea **zientzia aplikatua** da eta, noski, printzipioak eta erregelak aplikazio praktikoa daukate. Eragile juridiko gehienak alor horretan betetzen dute beren zeregina, hala nola notarioak, erregistratzaileak, abokatuak, aholkulariak eta abar.

**Teknika** Aplikazio praktikoa hori gauzatzeko edo burutzeko teknikak sortzen dira: helburua lortzeko eta arazoak konpontzeko. Askotan, praktikak berak sortu izan ditu teknikak, esaterako kanbio-letra. Baina, arazoak konpontzeko teknikak ere pentsatu eta sortu daitezke ere zuzenbideko laborategietan. Gaur egun, horrelako produktu ugari topatzen dira, esate baterako frankizia-kontratua, finantza-errentamendua, kontratuetako klausulak edo testamentuak.

**Aplikazio teknikoak** Hainbat helburu izan ditzake aplikazio teknikoak, baina nagusienak dira, batetik, ziurtasuna ematea erabiltzaile juridikoari eta, bestetik, eragiketaren kostu ekonomikoa murriztea. Zuzenbidearen aplikazio tekniko gisa, egun ingeleseko izenez ezagutzen dira instrumentu juridiko asko (*leasing, lease-back, factoring, swap, subprime lending*, eta abar); berez ez dira ezer berriak, ezein kode zibilean jasota dauden erakundeekin osatutako instrumentuak baitira.



### III. Legelarien trebetasuna

Zerbait jakiteaz jabetu daiteke, baina galdu ere bai; aldiz, izakera eginez indartzen da eta, horrela, hark iraun egiten du.

Zeregin juridikoan aritzeko beharrezkoa da, lehenik, erakunde juridikoen ezaguera izatea eta, gero, jakintza hori bete behar den lanak eskatzen duenaren arabera arazoei aplikatzea. Jarduera dinamiko hori burutzeko, beti, inguruko pertsonekin erlazionatzea ezinbestekoa da, baina norberak bereak dituen irizpideei uko egin gabe. Beraz, abilezia profesionala eskuratu nahi bada, hezkuntza juridikoan **trebetasun** hauek lortzea ere helburua izango da.

#### Irizpide objektiboen alorrean

**Trebezia teknikoa (jakintza) Ezagutzen ikasi (teoria)** Legelaria zuzenbideko aditua da. Beraz, zuzenbideko eragileak eta ikasleak erakunde juridiko guztien oinarritzko ezaguera izan behar du, espezializazioaren arabera alor jakin bateko aditua izatea utzi gabe.

**Trebezia metodologikoa (egiten jakitea) Egiten ikasi (praktika)** Legelaria zuzenbideko arazoei aurre nola egin badakien aditua da. Beraz, zereginak sortutako lanak eta arazoak antzematen, sistematizatzen, konpontzen eta azaltzen ikasi behar du ere zuzenbideko eragileak eta ikasleak.

#### Irizpide subjektiboen alorrean

**Gaitasun pertsonala Izaten ikasi (iritzi kritikoa)** Legelariak bere nortasunari eutsi behar dio, bere lana antolatzeko gai izan behar du, erabakiak hartzeko prestutasuna erakutsi behar du eta bere gain erortzen den erantzukizuna onartu behar du. Azken batean, norberak bere izateaz jabetu behar du eta, ondorioz, irizpide propioak eta espiritu kritikoa landu behar ditu.

**Gaitasun parte-hartzailea Elkarrekin bizitzen ikasi (bizikidetza eta talde-lana)** Zuzenbidea berez da gizarte-zientzia eta, derrigorrez, legelariak gizarteko beste pertsonekin harremana izango du bere lanean. Horretarako, batetik, gainerakoak kontuan hartzen dituen portaera erakutsi behar du eta, bestetik, adierazitako ideiak izaeraz konstruktiboak izan behar dute. Azken finean, heldutasuna erakutsi eta zentzuz (prudentziaz) jokatu behar da.



## IV. Legelarien zeregin nagusiak

**Arazoak prebenitu** Zerbaitek arazorik gabe funtziona dezan edo eragiketaren arriskuak ekiditeko, aurretik egitura juridiko egokiak prestatu eta eraiki behar dira. Hor kokatzen da legelariaren **zeregin nagusia: instrumentu juridikoak diseinatzea**, hau da, teknologia juridikoa egitea. Ohikoenak izaten dira kontratuak, testamentuak, gauzen estatutu juridikoa, familiako harremanak zuzen bideratzea. Asko eta asko jadanik diseinatuak daude formulario bidez, baina edonola ere partikular bakoitzaren beharretara egokitu beharra dago beti. Informatikariak gure lanean edo etxean behar ditugun programak ordenagailuan instalatzen dizkigun bezala, legelariak pertsona bakoitzaren harremanen eta ondarearen beharretara egokitutako instrumentu juridikoak zehaztu eta moldatuko ditu etorkizunean inolako arazo juridikorik izan ez dezan.

**Arazoak detektatu** Legelariak, lehenik, arazoa sumatu behar du, pertsona edo egoera bakoitzaren **diagnosia** eginez. Gero, interesatua **informatu** behar du, jakinaren gainean jarriz eta, gainera, interesatua **ohartaraztea** lortu behar du, hau da, arazoaren garrantziak konturatu dadila. Bukatzeko konponbiderako **aholkua** eman behar dio interesatuari. Zeregin horretan, ohikoa izango da legelariak txosten eta lan juridikoak prestatzea idatziz edo bat-batean komunikatzea ahoz.

**Arazoak konpontzen saiatu** Lorpen onena gauzatzeko, biderik aproposena **negoziatzea** izaten da, hartara gatazka jasaten dutenen interesak modu azkarragoan eta eraginkorragoan babesten baitira. Negoziazioan, zer eman eta zer jaso, interesatuak berak erabakitzen du eta bere gogoia asetuagoa geratzen da. Bestela, kontuan izan hirugarren baten (arbitroaren edo epailearen) esku jarriko dela erabakia hartzea (ebaztea edo epaitzea), prozesu bat martxan jarriz, egitateak frogatu beharra izanik, gastuak sortuz eta denborak aurrera eginez.

**Lan egiteko modua** Legelariaren zereginen, jarduera profesionalari lotutako portaera etikoak errespetatu behar dira.

### Balore pertsonalak

**Zintzotasuna** Ez engainatu inor eta egia guztia azalarazi.

**Sentikortasuna** Legelariak pertsonekin eta pertsonentzat egiten dute lan, ondorioz enpatia izan behar da arazoak dituenarekin.

**Apaltasuna** Izan ere, legelarien lana, kristal-zakuan eskua sartzea bezalakoa da: hainbatetan ebakia egingo da.

### Lanean aritzea

**Prestutasuna** Interes profesionala izateaz aparte, interes pertsonalarekin hartu behar da lana.

**Pertseberantzia** Arazo orori ekin behar zaio, garrantzi ekonomikoa kontuan izan gabe.

**Zehaztasuna** Arazoaren elementu guztiak, espioi edo aztarnari batek bezala aztertu behar ditu legelariak.

**Txukuntasuna** Ideiak argi eta ordenatuta azaldu behar dira.

**Laburtasuna** Erabakiak ez dira hartzen pisuaren arabera, arrazoien arabera baizik; beraz, horietara mugatu behar da, argudioa ona eta laburra bada, balio bikoitza baitu.

**Doitasuna** Argudioak azaltzeko, modu atsegina eta arina erabili behar da, eta hutsik gabeko koherentziaz lotuta.





**Garrantzia** Elementu eta datu guztiak dira kontuan hartu eta aztertu beharrekoak.

**Autokritika** Zerbait prestatu ostean, aldi batean alboratu eta gerora berriz erreparatu, lasaitasunetik ikuspegi berria eman eta akatsak nabarmenarazteko.

#### Komunikazioa

**Adierazgarritasuna** Ideiak argi eta garbi azaltzeaz gain, hizkuntza errespetatuz eman behar dira, eta ideiak azpimarratzeko tresnak erabiliz idatziz (letra lodia, etzana) edo ahoz (tonua, geldialdiak).

**Errespetua** Inoiz ez inor iraindu edo norbaiten ospea zikindu. Aldi berean, ez zurikatu inor (zuria ez izan inorekiko).

**Egiatzotasuna** Pertsonekin fede onez jokatu behar da, eta gauzei dagokienez objektibotasuna izan behar da (zalantza kasuetan zientziaren laguntza eskatu).

**Zuzentasuna** Harira joan behar da, ildorik laburrenak baitu efikazia.

**Juridikotasuna** Zuzenbidea arauak osatzen dute eta lan juridikoan argudioak ordenamenduan topatu behar dira; beraz, doktrina beharrezkoa denean bakarrik aipatu behar da.

**Denbora** Pertsona orok bere denbora gauzarik baliotsuena bezala bizitzen du, beraz inori ez galarazi edo lapurtu.

**Aditasuna** Besteen jarrerak jaso eta azkar baina tentuz erantzun, jaramon eginez momentuko inguruabarrei.